

BEZEROEKIKO HARREMANA

Atal honetan gure bezeroekin izango dugun harremana azalduko dugu.

Bi bezero mota izango ditugu. Alde batetik, produktua kontsumituko duten bezeroak izango ditugu. Hauengana zuzentzeko, web orri bat sortuko dugu eta bertan ditugun hainbat produktu jarriko ditugu salmentan, salmenta puntu finko batera joan beharrik gabe; kolore ezberdinetakoak, tamaina ezberdinetakoak momentuan momentuko egoerara egokitzeko... Beraz, bezeroarekiko harreman automatizatu izango dugu. Hala ere, edozein zalantza sortzen dela ere, ez diogu uko egingo arreta pertsonalizatuari. Hau da, web orrian telefono baten zenbakia agertuko da. Horretaz gain, gure enpresako e-maila ere agertuko da.

Beste alde batetik, gure bezeroak kontratatuko ditugun banatzaileak izango dira; horien artean, EROSKI, Carrefour, Lidl... elikadurako enpresa handiak. Horiekin izango dugun harremana aurrez-aurrekoa izango da. Enpresa hauek herri eta hiri ezberdinetan aurkitu ditzakegu. Enpresa hauen bidez gure produktua ezagunago bihurtzea lortuko dugu. Gainera, pixkanaka etxetresna elektrikoak saltzen dituzten dendetara zabaltzea gustatuko litzaiguke, askorentzat eskuragarriago eta harreman gertukoago gertatzen direlako denda hauek. Lehen aipatu dugun moduan, hauek ere Tolosaldean dauden dendetan izatea gustatuko litzaiguke.